

BAIETZ BASAURI! PLAFORMA SOZIAL ETA SINDIKALAK POLITIKA-KLASEARI ZUZENDUTA

Datorren maiatzean, "gure" ordezkariak aukeratu ahal izateko udaletxeko hauteskundeak dauzkagu eta hauetan parte hartzera deituta gaude. Mitinak eta promesak egiteko unea da, ahaztu gabe, krisiak dela eta, narriadura egoera bizitzera bultzatuta izan garela: 4000 inguru langabe, etxe-kaleratzeak, lan prekarietatea, osasuna eta hezkuntza bezalako zerbitzu publikoetan izandako murrizketak, laguntza sozialen gabezia...

Baten bat, ekonomia hobera doala, hazkuntza arintxua bizitzen ari garela, azkenik zulo beltzetik ateratzen ari garela... luzatzen ari da. Hala ere, bizi dugun errealitatea horrelakoa ez dela guztiok ikusten dugu: gazteek emaztipazio duina eskuratzeko aukera ez dute eta horrek lanpostua bilatzeko emigratzera bultzatzen ditu; pentsionistek hilabete amaiera heltzeko gorriak ikusten dituzte; komertzio txikiek lazeriak pairatu behar merkataritza enpresa handien aurrean, eta pobreziaren atalasean (gero eta feminizatuago), zenbat eta persona gehiago, hoietako askok lanpostua edukita ere.

Gure herrian, Basauri, datorren legislaturan gure ordezkariak izan nahi dituzten pertsonak, enplegu, babes soziala eta etxebizitza bezalako arloetan dauzkaten asmoak azaltzea ezinbestekoa dela jotzen dugu.

Hiruzpalau arlo hauetan, herritarrek hurbilen duten instituzioak, hots udaletxeak, esateko eta burutzeko asko duela pentsatzen dugu. Bizi dugun egoeran, herritarrok pairatzen ditugun arazo larri hauei aurre egiteko asmoz, instituzioetatik benetako aurrera pauso eta neurri sakonak hartu beharko dituztela uste dugu, benetan.

Herritarrok hobeto bizi ahal izateko, justizia soziala eta aberastasunaren banaketaren inguruko ideiak eta soluzioak emateko garaia da eta ez hauteskunde-propaganda eta diskurtsoak botatzeko unea soilik.

Beraz, herritarren eta basauriar bakoitzarekin hartuko dituzten konpromezuak publikoki zehaztea eskatzen diegu; lerro hauekin BAIETZ BASAURI! plataformak atzikitzen dituen proposamenak gure herriaren gehiengo sozialak babesten du.

Azken urte hauetan gure auzokideekin batera antolatu ditugun hainbat jardunaldi, eztabaida eta ekintzetan sortutako proposamenak dira. Noizbait, hauetako batzuk udaletxeko gobernu taldeari zein alderdiei luzatu egin dizkiegu, baztertuta edo ahaztuta utzi izanda ere.

Beraz, koherentzia eta gardetasun jardute bezala, iritzi publiko, hautesleria eta Basauriko herritar oroen aurrean, zerrendetan aurkeztuko diren hautagai guztiek, eragile sozial eta sindikalek luzatutako proposamen inguruan izango dituzten iritzi eta jarrerak argitzea ezinbestekoa dela jotzen dugu. Horrela, hartutako konpromezuak guztiok baloratu ahal izango ditugu.

